

DEIERRIKO UDALAREN ETA LA GÜERA (SAHARAKO ERREPUBLIKA ARABIAZ DEMOKRATIKOA) UDALERRIAREN ARTEKO SENIDETZE AKORDIOA.

Arizalan, bi mila eta bosteko irailaren hogeita bederatzian.

BILDURIK

Alde batetik Alvaro Nicuesa Santamaría jauna, adinez nagusia, N.A.N zenbakia X duena, Deierri Bailarako Udalaren (Nafarroako Foru Erkidegoa-Espainia) ordezkari gisa eta honen izenean jardunez, IFZ X zenbakia duena, Udalbatzak 2005eko uztailaren 29ko Osoko Bilkuran onartutakoaren ondorioz ekitaldi honetarako gaitua, X N.A.N zenbakia duen Udaleko idazkari Francesca Ferrer Gea andreak lagunduta, ekitaldi honen fede emateko

Eta bestetik Brahim Salem Buseif jauna, adinez nagusia, N.A.N zenbakia X duena La Güera (Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa) udalerriko ordezkari gisa eta honen izenean jardunez

Bi aldeek, duten odezkaritzan oinarrituz, libreki adosten dute senidetzea, ondorengo hitzarmenei jarraiki:

LEHENENGOA.- Deierriko Udalak eta La Güera (Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa) udalerriak aho bateko adostasun tinkoa adierazten dute laguntasun, batasun eta anaitasun senidetze harremanak mantentzeko, bi herri hauen aurrerabiderako, garapenerako, eta ongizaterako elkarbizitzako elkarren arteko nahian oinarriturik.

BIGARRENA.- Bi Udalbatza hauek, senidetutako Hiri titulupean, konpromisoa hartzen dute, libreki eta naturaltasunez, herrien loraldi espiritual eta materialaren alde laguntzeko, guztion askatasun, laguntasun eta oparotasun nahian oinarritutako harremanak indartuz.

HIRUGARRENA.- Jokabideak ondorengo jardueren arabera garatuko dira:

- Gizarte harremanak.
- Harreman kulturalak.
- Harreman ekonomikoak.
- Kirol harremanak.
- Truke harremanak.

LAUGARRENA.- Senidetutako Udalek era guztietako harreman sozialak bultzatuko dituzte, ohar tuke bidez formulatuz egoki irizten diren jarduerak aztertu eta gauzatzea.

BOSGARRENA.- Bi udalerriek kultura sustatzen duen jarduera oro bultzatuko dute, honakoak antolatuz:

A.- Interesekoak diren gaiei buruzko hitzaldien trukea.

- B.- Liburu, aldizkari eta edozein motako publikazioen trukea.
- C.- Hizkuntzak ikasteko udako ikastaroak.
- D.- Ikasle eta familien arteko trukea.
- E.- Pintura, argazkilaritza, zeramika, eskultura, eskulan, eta beste izaera artistiko bateko erakusketak.
- F.- Folklore erakustaldiak: kantua, dantza, musika, etab.
- G.- Lanbideen (laboral zein artistikoak) ordezkari diren erakundeen arteko harremana, eta baita entitate kulturalekin ere.

SEIGARRENA.- Udalbatza hauen bidez egoki irizten den jarduera programa garatuko da, ondoren aipatuko diren gisako aspektu ekonomiko zein komertzialak bultzatzeko:

- Azoka, erakusketa zein feriak bultzatzea.
- Produktuen dibulgazioa.
- Martxan dauden industriei eta bi herrien bizimoduan interesgarriak izan daitezkeenei buruzko informazioa.

ZAZPIGARRENA.- bi udalerriek kirol jarduera ororen garapena erraztuko dute, elkarte edo talde egokien bidez esku-hartzen, dagozkien konpetentziak areagotzeko.

ZORTZIGARRENA.- Turismoa bultzatze bidean, Udal bakoitzak dagokion gestioak egingo ditu:

- A.- Aduanako zailtasunak ezabatzeko eta bi herrialde hauek bisitatzeko erraztasun nahikoak jartzeko.
- B.- Ibilaldietako programak prestatzeko.
- C.- Bidaiari zein merkantziertzako garraiobideak bultzatzeko.
- D.- Publizitate trukea egiteko; jai giroko eta gai turistikoak dituzten manifestazioetako kartelak, iragarkiak, eta programak.
- E.- Turismoa sustatu eta kultura bultzatzeko helburua duten entitateei laguntza emateko.

BEDERATZIGARRENA.- bi udalerrri hauen arteko elkarlan eta trukea hitzarmen honetako lehen, bigarren eta hirugarren klausulek adierazten duten aspirazio eta helburuek eskatutakoaren arabera izango da eta garatu beharreko gaiak ez daude mugatuta. Bion interesekoak diren zeinahi ekimen, jarduera edo gai gehitu ahal izango da.

HAMARGARRENA.- senidetutako hirien arteko harremanak oinarrituko duten jarduerak gauzatzen saiatuko dira eta baita bi udalerrri hauen parte-hartze zuzena ere, garatzeko programak onartzen, eta, halaber, hartutako konpromisoak betetzeko hauetako bakoitzak eskatzen duen familien, entitateen, erakundeen eta lankidetzen kaudimena ziurtatuz

HAMAIKAGARRENA.- Senidetasun itun honen iraupena mugatua da eta bere iraupena bi udalerriek adierazten duten borondatearen arabera zehaztuko da, senidetasun harreman estuak mantentzeko grinean bat eginda, etorkizunean herri hauetako ongizate eta aurrerapena helburu duten jarduerak bermatzeko.

HAMABIGARRENA.- bi udalerriek Senidetasun Proiektu hau onartu ondoren aparteko dokumentu batean zehatuko dira senidetasun ekitaldien programa eta datak.

HAMAIRUGARRENA.- bi udalek, beren organo eskudunek harturiko akordioen bidez, ahalmena ematen diete, zuzenbideari dagokionez ahal bezain bidezko, herri hauetako alkateei proiektu hau gauzatzeko behar diren dokumentu eta protokolo guztiak sinatzeko eta bi udalerrriak ordezkatzeko egiten diren ekitaldi eta jardueretan.

Eta adostasunaren adierazgarri bi aldeek ale bi sinatzen dituzte, ut supra adierazitako leku eta egunean, eta nik, idazkariak, horren fede ematen dut.